



❖ LIBURUTEGIA

Literatur solasaldia gaur

Gaur literatur solasaldia izango da, *Eta emakumeari sugeak esan zion* Lourdes Oñederraren liburuaren bueltan. Ane Mayozen gidatuko du solasaldia. 19:30etan, liburutegian. ||

❖ AHT

Abiadura Haundiko Trenaren kontrako eguna larunbatean

Abiadura Haundiko Trenaren kontrako eguna izango da larunbatean, Hernaniko AHT Gelditu Elkarlanak deituta. Goizeko 09:00etan, dianarekin hasiko dute eguna; 11:00etan postu informatiboak izango dira Kaxkoan eta auzoetan; 14:30etan bazkaria egingo dute (Goiz Argi tabernan eman behar da izena); 16:00etan, batukada, bertsolariak eta poteoa izango dira herrian barrena; eta 19:00etan manikalejira antolatu dute. ||

❖ UDALA

Plenoa gaur

Gaur plenoa izango da udaletxean. Hainbat mozio aztertuko dira bertan, Alkatearen kontrako epaiketaren ingurua eta Garoñako zentral nuklearra ixtearen aldeko mozioa, besteak beste. Herriko zonalde berrietarako izenen proposamenak ere aztertuko dituzte. Gaur 18:30etan, pleno aretoan. ||

Gobernu batzordea gaur

Gobernu batzordea ere izango da gaur. Zinkoenea eta Orbegozoko rotonda lotzen dituen zubiaren inguruko obretaz eta 2009an zuzeneko erregimenean ematen diren dirulaguntzetaz hitz egingo dute, besteak beste. Gaur arratsaldeko 14:00etan, Alkatetzan. ||

Jendetza bildu zen atzo, Eduardo Benitez Tamayoren hileta elizkizunean

Eliza eta Plaza jendez bete ziren Eduardo Benitez Tamayoren hileta elizkizunean.



Eliza ingurua jendez gainezka atzo, hileta elizkizunean.

JENDEZ bete ziren atzo Eliza eta Plaza Eduardo Benitez Tamayo larunbatean hil zuten hernaniarraren hileta elizkizunean.

Egun hauetan hainbat elkartzasun adierazpen izan dira, besteak beste, Urbieta kalea, hilketa gertatu zen lekua, kandela eta lorez bete dute, eta igandean kontzentrazioa egin zuten leku berean, hildakoa gogoan izan eta senide eta lagunei babesa emateko. ||

GOBERNU TALDEA-Marian Beitialarrangoitia Alkatearen kontrako epaiketa

«Madrileko esku hartze onek Hernanin segida izan behar du bere helburuak beteko baditu»

Gobernu taldeko zinegotziek prentsaurrekoa eman zuten atzo.

OSTEGUNEKO Marian Beitialarrangoitia Alkatearen kontrako epaiketa dela eta gobernu taldea osatzen duten gaineko 7 zinegotziek prentsaurrekoa eman zuten atzo Alkateari babesa adierazi eta hainbat hausnarketa plazaratzeko.

Euskal Herrian gertatzen ari den eskubide urraketa oso larritzat jo zuten zinegotziek, «besteak beste, Alderdien Legea baliatuz herri honen sektore garrantzitsu batek jasan dako bazterketa eta bozkatzeko eta bozkatua izateko eskubidea zibilaren urraketa».

Ahalegin hauek berriak ez direla aipatu zuten: «Her-

nanin, Ajuria Enea paktuaren eskutik osatutakoa, aukera bozkatuena zen ezker abertzalearen kontrako gobernu horietatik hasi; Alderdien legeari esker udaletik kanpo utzitako Bildu Hernaniko hautagaitzatik segi (nahiz bide legalak izan oker hori zuzentzeko, betiere borondate politikoa izanda noski); eta azken bi urte hauetan ezagututako mozio etiko delako horiek edo lege aldaketa saiketetan bukatzeko».

Helburu garbia


Gobernu taldeko zinegotziek salatu dute helburua garbia

dela: «lehendabizi Marian bere kargutik bota, eta ondoren, bera ordezkatzeko debekua eman, zortzi zinegotzi zuten taldea, zazpian uztea». Aipatu zuten, Madrileko esku hartze honek Hernanin segida izan behar du bere helburuak beteko baditu: «joera demokratikoak gailenduko diren zalantzak ditugu, bati-pat, maiatzaren 11ko Giza-Eskubide batzordean ikusitako jarrerak ikusita. Eztabaidaren mamia izan zen ia oposizioko taldeek Udal hauteskundeetako emaitzetan oinarritutako udaletxe osaketa errespetatuko zuketena eta

konpromiso hori eskatzen zuten idatziari ezezkoa eman zioten EA, EAJ, EB eta PPko ordezkariak. PSOEko ordezkariak batzordera ez etortzea erabaki zuten».

Argi itzalketa

Bestalde, prentsaurrekoan, dei egin zieten herritarrei Udalak bihar egingo duen argi itzalketarekin bat egiteko. Udaltxeko argiak itzali egingo dituzte 22:00etatik 22:15etara eta gonbitea luzatu zuten norberak etxean gauza bera egiteko. Ostegunean Hernanin eta Madrilen Alkatearekin bat egiteko deia ere egin zuten. ||



TITAN-ETXE
TABERNA
ASTE BURUETAN AFARIAK
Larramendi, 15
Tel.: 943 55 00 46

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 ● Gauez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA
GAUR Ez da aldaketarik espero. Goizean eta iluntzen zerua lainotuta izango da. Gainontzean zerua laino gutxi-rekin izango da. Temperaturek gora egingo dute.

BIHAR Goizean behe lainoa izango da baina eguzkia nagusituko da egun osoan zehar. Temperaturek gora egingo dute nabarmen. (euskaime)

JOSE LUIS ELEXPE 'Pelex'-Hotsez hots erakusketa «Egurra lantzeak ere, kolpez kolpe, nolabait ere txalaparta hotsak sortzen ditu»

Erakusketa ostiralean hasiko den Txalaparta Festaren egitarauaren barruan antolatu dute.

EGUN hauetan Biteri kultur etxeko erakusketa gelara gerturaten dena txalaparta gogora ekartzen duten forma, irudi eta koloreetan murgilduko da, Jose Luis Elexpe Pelex sortzaile usurbildarraren Hots Hots erakusketaren bidez. Erakusketa ostiralean hasiko den Txalaparta Festaren egitarauaren barruan antolatu dute, hasiera ezin egokiagoa bazter guztietako txalapartariak bilduko dituen jaialdirako. Erakusketa, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara ikusi ahal izango da, eta larunbatean ere, egun osoan zehar izango da ikusteko aukera.

Egurra lantzea, txalaparta jotzea

Jose Luis Elexpe usurbildarrak 2005ean hasi zen proiektu honen bueltan lanean, «mugimendu asko duen zerbait egin nahi nuen, eta hain gurea den txalapartarekin lotuta sortu zitzaidan. Nire egurlantzeak ere, kolpez kolpe, nolabaiteko txalaparta hotsak sortarazten dituztenez, oso erraz uztartu zitzaizkidan. Eta gainera, Usurbilen ditugun txalapartariei, eta haien izenean Jexux Artzeri, omenaldi txiki bat egitea otu zitzaidan, nire lanari osotasuna eman eta borobiltzeko».

Behin gaiari helduta ordu mordo egin zituen Usurbilen bere estudioan murgilduta, txalapartari buruzko liburuak irakurtzen, dokumentatzen, bozetoak egiten eta lanean. Lan ordu guzti horien emaitza izan dira 200 koadro baino gehiago eta 70 bat eskultura. Lan hauek aurrenekoak, Usurbilen aurkeztu zituen eta aste honetan Biterin daude ikusgai.

Lan guztien artean, azpimarratzekoak dira, baita ere, Mikel Laboaren omenez egingadako lanak, azaldukoaren arabera, bere obran esanahi asko dute Laboaren kantu eta letrek eta bere omenaldia eskaini nahi izan dio.



Jose Luis Elexpe, Pelex, Biterin bere lanekin.

Harrera bikaina

Hotsez Hots erakusketa joan den astean inauguratu zen Hernanin, eta azaldukoaren arabera, harrera ona izaten ari da: «kolore aldetik eta esteti-

koki polita dela esan didate, eta baita txalaparta zer den ondo azaltzen duela».

Aurrerantzean, Tolosa, Ordizia, eta Bartzelonara eramango du erakusketa. ||

► Txalaparta Festa: egitaraua

MAIATZAK 22, ostirala:

● 'Munduko Beat' emanaldia, Madriren Txalaparta taldearen eskutik.

● Txalaparta party aparta. DJ Barru, txalapartariekin. Gaueko 00:00etan, Atxur pub tabernan.

MAIATZAK 23, larunbata:

● Txalaparta Festa, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Tilosetan: Txalaparta erromerriak, txalaparta saio libreak, sagardo banaketa, Hernaniko Musika Eskolako Alboka, Dutzaina, Trikitixa eta Txistu taldeak kale bueltan.

● Herri afaria, gaueko 21:00etan. Izena emateko: Hernani Musika Eskolan (943 33 70 50). Prezioa: 20 euro.

● Txalaparta Jaialdi Nagusia, (Afalondoren). Hernaniko Bertso Eskolako bertsolariak, Zuaznabar eta Goikoetxea txalapartari famulietako txalapartariak, Gasteizko Asier eta Daniel txalapartariak alboka eta dultzainaz lagunduta, Iparraldeko txalapartariak, Nafarroako txalapartariak, Leioa eta Gallartako Txalaparta Eskolako txalapartariak, Andoaingo Txalaparta Eskolako txalapartariak eta Hernaniko Musika Eskolako Ttakun ttan txalaparta taldea.

Oharra: Txalaparta merkatu txikia irekita egongo da larunbatean zehar. (Eurria egingo balu Atsegindegin egingo litzateke jaialdia).

❖ URRETXA MIKOLOGIA ELKARTEA

Larunbaten Burgosera joateko gaur eman behar da izena

Urretxa elkarteak perretxikotarako plana egin du larunbaterako. Burgosera basoetara joango dira. Goizeko 05:00etan aterako dira Atsegindegitik eta gaueko 21:00etarako bueltatuko dira. Izena gaur eman behar da Urretxa elkartearen, 20:00etatik 21:00etara.

◆ MUS TXAPELKETAK

Gaurko partidak

Santa Barbara elkartearen gaur finalerdietako partidak jokatuko dira. Honakoak: Garmendia-Garmendia/Titin-Ajero; Sesma-Kaki/Xixa-Eguren. Aralar elkartearen beste partida hauek jokatuko dira: Javi-Pello/Patxi A-Patxi B; Lunaro-Eka/Anton-Jose Luis; Patxi-Javi/Ketxus-Juankar; Gros-Amara/Felis-Inigo; eta Garmendia-Garmendia/Juan-Txato. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JAVIER AUZMENDI TOLOSA
JAUNA
Atzo hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Alta Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Margari Tejedor Aguirre; seme-alabak: Xabier, Edurne eta Aitor Manterola, Ainhoa eta Txema Rivas; bilobak: Mireia eta Ainara; anaia: Perico; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetezela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko maiatzaren 19an

Helbidea: Iturregi, 26
Oharra: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN goizeko 11:30ak arte egongo da.

† JAVIER AUZMENDI TOLOSA
- Goian Bego -

*Urak dakarrena, urak daroa
baina zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.*

EIZMENDI - TEJEDOR FAMILIA

Hernanin, 2009ko maiatzaren 19an

JAXINTO ARRUTI ARTABIDE

*Beti umoretsu,
beti pozik
goizero zu ikusiz
alaitzen gintuzun eguna.
Ez zaitugu ahaztuko benetan
gure LEHOIKUME zoragarria.*

**PUTZUETA HARATEGIKO
ZURE LAGUNAK**

Hernanin, 2009ko maiatzaren 19an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxeko konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma birbraztailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diaforeoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)